# HELBURUZKO PERPAUSAK (ERREPASOA)

1. **Ordezkatu** azpimarratuta dauden aditz jokatugabeak. Erabili **aditz jokatuak**.

   a) (Gu) zinemara joateko asmotan etorri naiz zure bila.

   b) Amaiak 400 kilometroko bidaia egin du ordu batzuk eskiatzearren.

   c) Haurra isiltzeko gozoki bat eman diot.

   d) Gu pozik bizitzeko gurasoek hamaika lan egin dute!

   e) Hiriko plano bat eman diet turistei, Gasteiz ezagutzeko.

   f) (Zuk) Matematikako ariketak egiteko deitu dizut.

   g) Matematikako azterketa dagoela (zuk) jakiteko deitu dizut.

   h) Txartela utzi dizuet, kotxea etxe ondoan aparkatzeko.

2. **Erantzun** galderei. Erabili **aditz jokatugabeak**.

   a) Zertarako erosi dituzue hainbeste jolas? (ongi pasatu)

   b) Zer asmotan atera ditu argazkiak? (Instagramera igo)

   c) Zertara zoaz kiroldegira? (Igeri egin)

   d) Zergatik joan zara hondartzara? (Eguzkia hartu)

   e) Zergatik etorri zarete berandu? (Autobusa galdu)

3. **Idatzi** falta den aditza. Erabili **aditz jokatuak**.
   - Amaia festara (etorri) _______________ nahi dugu.
   - Zuek kotxea (konpondu) _______________ eskatzen dizuet.
   - Nik film berria (ikusi) ______________ joango naiz zinemara.
   - Ikasleek nota onak (atera) _______________ espero du zuzendariak.
   - Zuek ikastetxean (sartu) ______________ giltza eskatu beharko duzue.
   - Medikuak egunero ordubete (ibili) _____________ gomendatu dizu.

- (Gu) (Itzuli) _________________ etxera, berandu da-eta.
- Enekok kamiseta zaharrak (bota) ______________ esan diogu.
- Zuk bertsoak (abestu) _______________ gustatuko litzaidake.
- Umeak jolasten (hasi) _______________ itxaroten gabiltza.
- Guk aurten bi liburu (irakurri) _______________ nahi dut aitak.
- Ni etorkizunean oso zoriontsua (izan) _______________ espero dut.
- Nik bokadiloak (prestatu) _________________ agindu dit Elenak.
- Leirek azterketa ongi (egin) ________________ espero dute gurasoek.
- Anek eta Jonek ariketa (ulertu) ______________ nahi du irakasleak.
- Zuk janzkera (aldatu) _______________ erregutu dizu amonak.
- Guk kurtsoa (gainditu) _________________ esperantza handia daukagu.